

TREBAKUNTZA 2017-10: LABURTZAPENAK (II): LABURDURAK ETA IKURRAK

Udal idazki askotan laburtzapenak gaizki erabili ohi dira. Aurreko fitxan, siglei buruz jardun genuen. Gaur, beste bi laburtzapen motei buruz ariko gara: laburdurak eta ikurrak.

AZALPEN OROKORRAK

1.- LABURDURAK

Adibideak: tel. (=telefonoa), zenb./zk. (=zenbakia), ezk. (=ezkerra), esk. (=eskuma), z. g. (=zenbaki gabea) eta beste asko.

Erabilera: hitz arruntak laburtzeko erabiltzen dira, baina hitz osoak irakurtzen dira.

Idazkera: puntua hartzen dute amaieran.

Deklinazioa: deklinatzean, hitz osoak idaztea komeni da.

2.- IKURRAK

Adibideak: h (=altuera edo ordua), cm (=zentimetro), m (=metro)...

Erabilera: nazioarteko balioa duten zientzia eta teknikako unitateak dira; esate baterako, fisikako unitateak adierazteko erabiltzen ditugu.

Idazkera: ez dute punturik hartzen.

Deklinazioa: marrarekin deklinatzen dira. Kasu marka hitz osoari jarriko bagenio bezala jarri behar da: 2 m-ko (=bi metroko), 2 h-ra (bi ordura).

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Helbidea: Samaniego kalea 48, 4. ezk*
2. * *Tfnoa: 943260372. Fax.: 943260510.*
3. **Entzun dut zuz.-arekin egin behar dutela bilera.*
4. * *[Inprimaki batean] Zbkia.: 129867*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

5. * Eskatzaileak **2 m.-ko** atea jarri beharko du.

6. * Hesitik hesira **50 zm-ko** tartea jarri behar da.

ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

1. **Laburdurak puntuz** idatzi behar dira; hain zuzen ere, laburdura dela adierazteko.

Ad. Helbidea: Samaniego kalea 48, 4. **ezk.**

2. Laburdurak **ez daude araututa**, baina denek laburdura berak erabiltzea komeni denez, forma jakin batzuk adostu eta bultzatu dira. Adibidez, tel. (=telefonoa). Faxa, berriz ez da laburdura, hitz osoa baizik.

Ad. **Tel.:** 943260372. **Faxa:** 943260510.

3. Laburdurak deklinatzean, **hitz osoak** idaztea komeni da. Izan ere, bestela, honako formak idatzi beharko genituzke: zuz.arekin, zenb.etako...

Ad. Entzun dut **zuzendariarekin** egin behar dutela bilera.

4. “Zenbakia” hitzerako, “**zenb.**” Edo “**zk.**” laburdura dago adostuta.

Ad. [Inprimaki batean] **Zenb./Zk.:** 129867

5. Ikurrek ez dute punturik behar. Izan ere, horixe da laburduretatik bereizteko modua.

Ad. Eskatzaileak **2 m-ko** atea jarri beharko du.

6. Ikurrak nazioartekoak dira. Horregatik, ikurrek ez dute, berez, loturarik euskarazko ortografiarekin. Adibidez, zentimetroen ikurra **cm** da, baina hitz osoa idaztean **zentimetro** idatzi behar da.

Ad. Hesitik hesira **50 cm-ko** tartea jarri behar da.

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99